

IKUSHI!

Laburmetrai lehiaketa

Gazteen artean euskararen eta hitanoaren erabilpena sustatzeko egitasmoa

OINARRIAK

1. Lehiaketaren helburua

Oñatiko gaztetxoaren artean euskararen eta hitanoaren erabilera bultzatzea, teknologia berrien bidez ikus-entzunezko ekoizpen bat sortuz eta haren zabalkundea eginez.

2. Lehiaketako sariak

Bi kategoriatan, bina sari banatuko dira:

DBH

1. saria - *400€-ko bonua
2. saria - *200€-ko bonua

Batxilegoa

1. saria - *400€-ko bonua
2. saria - *200€-ko bonua

Bi kategorietako laburmetrai irabazleak OLRko sari banaketa ekitaldian proiektatuko dira.

*Taldea saritu bakoitzak erabakiko du zertan gastatu bonua; betiere, ekimenaren helburuekin bat eginez, hizkuntzarekin eta kulturarekin lotura duen zerbait izan beharko du. Antolatzaileei egin beharko zaie proposamena, ontzat eman eta erosketa gauzatzeko.

3. Lehiaketara aurkezteko bete beharreko baldintzak

-Lehiaketan parte har dezakete Oñatin erroldatutako DBH3, DBH4 eta Batxilergo mailako herritarrek.

-Bideoan NOKA hizkera agertu beharko da (TOKArekin batera ala NOKA bakarrik).

-Bideoaren iraupena gutxienez minutu bat eta gehienez 6 minutukoa izango da.

-Taldea bakoitza gutxienez 5 lagunez osatuta egongo da.

-Bideoak aurretik argitaratu gabea eta inon saritu gabea izan beharko du eta ezingo du aurretik sortutako bideo baten zati bat izan, ezta beste egile batek egindakoa ere.

4. Bideoak aurkezteko modua

- Bideoak Oñatiko Gazteleguan aurkeztuko dira, antolakuntzak talde bakoitzari aurrez emandako USB batean (USBak, besteak beste, tailerren inguruko informazioa eta adingabekoen parte hartzea baimentzeko guraso-baimenaren inprimakia izango ditu barruan).

- Bideo bakoitzarekin batera, datu hauek aurkeztu beharko dira: taldearen eta egileen izen-abizenak, jaioteguna, helbidea, emaila eta telefonoa.

- Bideoan adin txikikoak agertzen badira, irudietan agertzen diren adingabeko guztien guraso edo tutoreek —bideoaren egileak izan ala ez— baimena eman beharko dute bideoa erabili ahal izateko. Baimenak lanarekin batera aurkeztu beharko dira.

- Aurkeztutako bideoa VLC aplikazioaren bidez erreproduzitu ahal izango da.

- Proposamena lehiaketara aurkeztu ondoren, ezin izango da erretiratu.

5. Bideoak aurkezteko epea

- Bideoak aurkezteko epea 2024ko abenduaren 16tik 2025eko urtarrilaren 15era (biak barne). Urtarrilaren 26an, sari banaketarekin batera, bideo-emanaldia egingo da lehiaketako lanak erakusteko. Saritutako lanez gainera, aukeratutako beste bideo batzuk ere erakutsiko dira.

6. Epaimahaia

Epaimahaia honako hauek osatuko dute: talde teknikoko kideek, euskara-teknikariak eta Ingo Xonau! taldeko ordezkari batek.

7. Balorazio irizpideak

1. Oñatiko hika agertzea: noka edo noka/toka (zuzentasuna eta egokitasuna aintzat hartuko dira).	%30
2. Edukiaren originaltasuna	%25
3. Bideoaren kalitatea. Arlo teknikoa (audioa, irudia)	%30
4. Bideoaren kalitatea. Arlo artistikoa. (Interpretazioa)	%15

Gaia librea izango da. Bideoak euskara hutsean grabatuko dira. Konnotazio sexistak, xenofoboak, arrazistak, homofoboak edo iraingarriak dituzten bideoak baztertu egingo dira.

8. Epaia eta jakinarazteko epea

Epaia aldaezina izango da eta aurkeztutako lanen maila egokia ez bada, epaimahaia lehiaketa epairik gabe utzi ahal izango du.

Irabazleak sari-banaketaren egunean jakinaraziko dira. Sari-banaketaren ondoren, komunikabideen bidez ere emango da saridunen berri.

9. Bideoen erabilera

Antolakuntzak hala erabakitzen badu, aukeratutako bideoak Youtube-n zintzilikatuko ditu, betiere argitalpen arauak betetzen badira.

10. Oinarriak onartzea

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.